



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



Alkarbidek –Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta, 60.000 familiarengana heldu nahi da kanpaina honen bidez.

APELLIDUAK ABIZENDU. IZEN-ABIZENAK EUSKARAZKO GRAFIAZ JARTZEKO KANPAINA

Bizkaiko 60.000 etxetan baino gehiagotan jasoko duten *Apellidua abizendu* leloa daraman kanpainaren berri. Ekimen horren helburua, izenak edo abizenak euskarazko grafiaz jartzea da. Alkarbide bilguneak koordinatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestuta, egitasmo hau martxan jarriko da 21 udalerritan eta mankomunitate batean. Horretarako, etxe guztietara izena edota abizenak euskarazko grafiaz jartzeko jarraitu beharreko urratsen berri ematen duen triptikoa zabalduko da udalerrri horietan.

Helburua

Egitasmoaren helburua izen-abizenak euskarazko grafiaz idaztea da. Horretarako, izena euskaratzeko edota euskal abizenak euskarazko grafiaz idazteko egin behar diren urratsen berri ematen duen triptikoa prestatu da.

Kanpainaren edukiak

Kanpaina honetan osagai hau banatuko da:

Hiru-orrikoa: Etxez etxe banatuko den paperezko euskarria. Euskarri horretan izena edota abizena euskarazko grafiaz jartzeko urratsen berri ematen da modu erraz eta sinplean.

Triptikoaren lehen zatian grafia aldatzeko erregistro zibil edo epaitegira hurbildu behar dela azaltzen da eta bertan ematen duten orriarekin batera zeintzuk agiri aurkeztu behar diren. Horrez gain, izena edota abizena zelan geratuko den kontsultatzeko Euskaltzaindiaren orriaren berri ere ematen da.

Hiru-orrikoan informazioa emateaz gain, besterik jakin nahi izanez gero edota zalantzak argitzeko euskara zerbitzura jotzeko ere esaten da, herritarrei bidea ahalik eta gehien erraztu asmoz.



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



Hartzaileak

Kanpainaren hartzaileak egitasmoan parte hartzen duen herrietako biztanle guztiak dira.

Guztira 60.000 ale baino gehiago banatuko dira 27 udalerritako etxeetan. Beraz, Bizkaiko 150.000 biztanle inguruk jasoko dute euren etxeetan izena edota abizena euskarazko grafiaz jartzeko informazio-triptikoa.

Parte-hartzaileak

Bizkaiko **21 udalerri** eta **mankomunitate 1**. Guztira honako 22 erakunde hauek:

Abadiño • Abanto-Zierbena • Amorebieta-Etxano • Arrieta • Arrigorriaga • Berriz • Elorrio • Erandio • Etxebarria • Fruiz • Gamiz-Fika • Igorre • Lekeitio • Lemoa • Markina-Xemein • Mundaka • Mungia • Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz • Muskiz • **Txorierriko Mankomunitatea** • Zaldibar • Zierbena •